

## 5. IRABAZI-ITURRIAK:

Edozein enpresaren faktore garrantzitsuenetako bat diru-sarrereren iturriak dira. Diru-sarrera horiek lortzeko hainbat modu daude, martxan jarri nahi den negozio motaren arabera.

Gure negozioan 4 diru-sarrera nagusi egongo dira:

- Diru-sarrera iturri nagusia eta garrantzitsua, gure bezeroen hileko harpidetza izango da, gure aplikazioan alta ematean. Gure bezeroek hilean 10 euroko kuota ordainduko dute gure zerbitzuaz gozatu ahal izateko.
- Hurrengo sarrera-iturria zerbitzu-kontratu motaren araberakoa izango litzateke. Premium zerbitzua kontratatu nahi badute, 5 euroko gainkostua izango du hileko kuotaren aldean.
- Beste sarrera-iturri bat gutxien erabiltzen duten arroparen salmentarekin lotuta dago. Aplikazioak arropa hori salgai jartzeko aukera emango du, baina horren truke enpresak salmenta kostuaren % 5 eramango du.
- Gure azken sarrera-iturria modarekin zerikusia duten beste enpresa batzuen publizitatea aurkeztea izango da, zerbitzua erabiltzen duten bitartean. eta enpresa horiei publizitatea egiteagatik kobratuko zaie.

